

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### GUARDIAKO UDALA

#### Hasierako onarpena ematea esparru turistikoetan sartzeko prezio publikoa arautzen duen ordenantzari

Ikusirik izapidetu den espedientea, Guardiako esparru turistikoetara sartzeko prezio publikoa arautzen duen zerga ordenantzaren tarifa aldatzeko proposamenari buruzkoa, Udalbatzak, 2016ko uztailaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen aho batez:

Lehenengoa: Behin-behineko onarpena ematea Guardiako esparru turistikoetara sartzeko prezio publikoa arautzen duen udal ordenantzaren tarifaren aldaketari. Honela geratu da idatzita 3. artikulua:

#### **3. artikulua Zenbatekoa**

1. Ordenantza honetan araututako prezio publikoen zenbatekoa hurrengo paragrafoan zehaztutako tarifetan zehaztutakoa izango da.

2. Prezio publikoen tarifa hau izango da:

Helduen sarrera (pertsonek bakoitzak ordaintzekoa):

– Erregeetako Andre Mariaren eliza: 3 euro

– Abazial dorrea: 2 euro

– Urmael zeltiberiarra: 4 euro

Bigarrena: Bat etorritz apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 49. artikuluan eta horrekin bat datozen gainerako xedapenetan xedatutakoarekin, espedientea jendaurrean jartzen da hogeita hamar egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek espedientea aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Indarrean dagoen araudian xedatutakoarekin bat etorritz, ordenantza behin betiko onartutzat joko da erreklamaziorik aurkezten ez bada, eta haren testua ALHAOn argitaratuko da.

Guardia, 2016ko abuztuaren 31

*Alkate-lehendakaria*

*J. PEDRO LEÓN GARCÍA DE OLANO*